



## ERRETERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

**Espediente zk./Nº Expediente:** 2023SZUZ0017

**Erreg. data/Fecha Reg:** 2023/02/22

**Erreg. zk. / Nº Registro:** 000000

**Gaia/Asunto:** UNRWA - LURRIKADA - 2023ko Larrialdietako dirulaguntza zuzena.

**Eskatzailea/Solicitante:** ASOCIACION COMITE ESPAÑOL DE LA UNRWA

**NAN(IFK)/DNI(NIF):** G84334903

**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRETERIA

### DEKRETUA

### DECRETO

#### AURREKARIAK

#### ANTECEDENTES

Otsailaren 6an, goizaldeko 6etan, Richter eskalan 7,8ko indarra izan zuen lurrikarak Turkiako hegoaldea eta Siriako ipar-mendebaldea astindu zituen. Ondoren, 7,5 magnitudeko beste lurrikara bat izan zen. Eremu horretan, Siriako gatazkan aurkari diren aldean kontrolpean dauden eremuen artean banatuta dago, 4,1 milioi pertsona laguntza humanitarioaren mende daude, eta hondamendia gertatu aurretik ere egoera oso larria zen. Horietatik, 1,8 milioi errefuxiatu eta barne desplazatu kanpaleku edo kokalekuetan bizi dira, eta ura, elektrizitatea, berogailua edo osasun arreta eskuratzeko mugak dituzte. Egun, gainera, hotza izugarria da.

Siriako lurraldean hildakoen balantzea 5.000 baino gehiagokoa da, eta 8.000 zauritu baino gehiago daude (hildakoen kopuru orokorra 35.000tik gorakoa da bi herrialdeetan).

Errenteriako udalak eskainiko dion dirulaguntzaren bidez, garbiketa KITak erosiko dira eta familiei banatu. Hilean KIT bat. Hortaz, gutxi gorabehera 228 kit banatuko dira. Horietan, xaboia, hortz eskuila, hortzetako pasta, detergentea, eskuoihala, xanpua, konpresak eta zakar poltsak daude. Garrantzia du, bereziki, emakume eta haurren artean banatzea

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

- Kultur aniztasuna, garapenerako lankidetzeta eta giza eskubideetako azpisaileko teknikariak, 2023ko

El 6 de febrero, a las 6 de la madrugada, un terremoto de 7,8 en la escala Richter

sacudió el Sur de Turquía y noroeste de Siria. Después hubo otro de 7,5 de magnitud.

En esta zona se enfrentan al conflicto sirio

entre zonas controladas por las partes, por lo que 4,1 millones de personas atendidas dependen de la ayuda humanitaria, e incluso antes del desastre la situación era de extrema gravedad. Ya que 1,8 millones de personas refugiadas viven en campamentos de desplazados internos o viven en los asentamientos y el agua, la electricidad, calefacción o atención sanitaria tienen limitaciones. A día de hoy, además, el frío es terrible.

El balance de muertos en territorio sirio es de 5.000 personas, y 8.000 heridos. Entre los dos países supera los 35.000 personas.

A través de la subvención que le ofrecerá el Ayuntamiento de Errenteria, se adquirirán los KITS de limpieza que se entregarán a las familias. Un KIT mensual. Así, se repartirán aproximadamente 228 kits. En ellas hay jabón, cepillo de dientes, dentífrico, detergente, escuadra, champú, compresas y bolsas de basura. Es de vital importancia el reparto entre mujeres y niños.

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

- La técnica de la subárea de diversidad cultural, cooperación al desarrollo y derechos humanos ha



## ERRETERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

otsailaren 24an txostena eman du.

- Udal aholkulari juridikoak 2023ko martxoaren 3an oniritzia eman dio dekretu proposamenari.

- Udal Kontu-hartzailearen fiskalizazio-txostena, 2023ko martxoaren 8koa.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 22.2 c) artikulua.

Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1.c.c1 artikulua (GAO 2015/08/10)

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatezaz eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz,

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatezaz eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta (e)k espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

### EBATZI DUT

1.- 8.000€-ko dirulaguntza humanitaria ematea ASOCIACION COMITE ESPAÑOL DE LA UNRWA elkarteari (G84334903) aurkeztu duen proiektua finantzatzeko:

Siriako eta Turkiako lurrikarak kaltetutako pertsonen laguntza, bereziki, Palestinako errefuxiatuei.

2.- 8.000€-ko gastua baimentzea eta konprometitzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1.1430.481.01.230.20 (7699) partidaren kontura, AD-712-2023.

3.- Diru-laguntzaren ordainketa horrela egingo da:

emitido informe con fecha 24 de febrero de 2023.

- El asesor jurídico municipal ha dado el visto bueno a la propuesta de decreto el 3 de marzo de 2023.

- El informe de fiscalización de la Interventora municipal, de fecha 8 de marzo de 2023.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

Artículo 22.2 c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 11.1.c.c1 de la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (BOG 10/08/2015).

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento,

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,


### RESUELVO

1.- Conceder una subvención de 8.000€ a la ASOCIACION COMITE ESPAÑOL DE LA UNRWA (G84334903) para la financiación del proyecto presentado:

Ayuda a las personas afectadas por el terremoto de Siria y Turquía, en especial apoyo a las personas refugiadas Palestinas.

2.- Autorizar y disponer un gasto de 8.000€ con cargo a la partida 1.1430.481.01.230.20 (7699) del vigente presupuesto, AD-712-2023.

3.- El abono de la subvención se realizará de la siguiente forma:



## ERRENTERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

- Dirulaguntzaren %80a: 6.400€ dekretu hau ebaztean.
  - Dirulaguntzaren %20a: 1.600€ memoria aurkeztu ostean.
  - 4.- 2023ko abenduaren 31era arteko epea ematea dirulaguntzaren zuritze-dokumentazioa aurkezteko.
    - a) Diru-laguntza jasoko duen programa edo jardueraren memoria, ordenantzaren 13.3 artikuluan ezarritako ezaugarriak izango dituena. Memoria horrekin batera, gutxienez, ondorengo informazioa aurkeztu beharko da:
      - b) Proiektua gauzatzeari buruzko txosten teknikoa. Bertan adieraziko dira eginiko aktibitateak, lortutako emaitzak eta azaldutako aldaketa eta zailtasunak.
    - Garatutako ekimenaren jasagarritasuna.
    - Komunitatearen parte-hartzea.
    - c) Memoriari ondorengo agiriak atxikiko zaizkio:
      - Errenteriako Udalak emaniko diru guztiekin eginiko eragiketa guztietan aplikaturiko kanbio-mota baldin eta erosketa bertan egin duten.
      - Memoria ekonomikoa.
      - Argazkiak.
    - d) Zuriketa Guztizko Balantze bidez izango da.
    - e) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.
  - 5.- Ordenantza arautzailean edo diru-laguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak, diru-laguntza berrikustea suposatzen du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaistea
- 80% de la subvención: 6.400€ tras aprobarse el presente decreto.
  - 20% de la subvención: 1.600€ tras la presentación de la memoria.
  - 4.- Conceder plazo hasta el día 31 de diciembre de 2023 para presentar la documentación justificativa de la subvención.
    - a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada, con las características recogidas en el artículo 13.3 de la ordenanza. La citada memoria aportará como mínimo la siguiente información:
      - b) Informe técnico sobre la ejecución del proyecto, describiendo las actividades realizadas, los resultados conseguidos, los cambios y las dificultades que han surgido.
    - Sostenibilidad de la iniciativa desarrollada.
    - Participación de la comunidad.
    - c) A la memoria se tendrá que adjuntar la siguiente documentación:
      - Tipo de cambio aplicado en todas las operaciones realizadas con los fondos entregados por el Ayuntamiento de Errenteria en caso de haber realizado la compra en el país.
      - Memoria económica.
      - Memoria fotográfica.
    - d) La justificación será mediante Balance Total.
    - e) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.
  - 5.- El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en la ordenanza reguladora o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución



## ERRETERIA UDALA

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz / Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo

edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, azaroaren 17ko **38/2003** Diru-laguntzetarako Lege Orokorrean agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, baita diru-laguntza ordaintzen den unetik itzulketa egin beharra erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

6.- Udal Aurrekontuaren kargura diru-laguntza jasotzeko, erakunde edo pertsona fisiko onuradunek, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren eguneratua izatea beharrezkoa izango da, legeak horrela eskatuko balu.

7.- Ebazpen hau jakinaraztea entitate interesatuari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari.

8.- Ebazpen hau araudiak dioen bezala argitaratzea.

o devolución de la cantidad otorgada.

Además, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos que figuran en la Ley **38/2003**, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

6.- Para la percepción de las subvenciones con cargo al Presupuesto Municipal, será requisito por parte de la entidad o persona física beneficiaria, el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social si legalmente así le correspondiera.

7.- Notificar esta resolución a la entidad interesada y ponerla en conocimiento del Departamento de Hacienda y Desarrollo Económico.

8.- Publicar esta resolución tal y como establece la normativa.

Erreterian, sinaduran agertzen den datan

Erreteria, en la fecha de la firma

Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giz **ZINEGOTZI DELEGATUA** / CONCEJAL/A DELEGADO/  
A de Cultura de la Diversidad, Cooperación al Desarrollo



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUF28c1477-702d-402c-9a7f-aa1c40f56c7f**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoa: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023SZUZ0017-DEKRETUA/DECRETO (ASOCIACION COMITE ESPAÑOL DE LA